



“Politikarientzat parte hartze prozesua” abiatu dute Gazteriaren Kontseiluko gazteek

- ✱ Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak **galdetegi kritikoa** bidali die legebiltzarkideei eta beste politikari batzuei
- ✱ **Politikariak inoiz ez direla** bere proiektuetara **gerturaten** salatu dute gazte-elkarteek

Bilbon, 2013ko martxoaren 13an. “Politikarientzat parte hartze prozesua” aurkeztu du gaur Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak. Bilbon eskainitako prentsaurreko batean, gazte elkarten plataformak atzo legebiltzarkideei eta bestelako kargu politikoei postaz bidali **zien “parte-hartze galdetegi satirikoa”** aurkeztu du. Zehazki, EGK-k bere aldarrikapen nagusietako bat helarazi nahi izan die politikariei gutun horrekin, erakundeko presidente Batiste Ezeizak azaldu duenez: “Bere parte hartze prozesuetan murgildu gaitzen eskatzen digu behin eta berriz Administrazioak gazteoi, baina **politikariak ez dira ia sekula etortzen gazteok guk geuk antolatutako deialdi eta proiektuetara**”.

“Pertsona gazteok politikarien ahotsa kontutan izan genezan gustatuko litzaizuke?”. Hori da politikariei bidalitako “inkesta adarjotzailearen” galderetako bat. Erantzunen artean, “goi kargu bati deitzeko komodina” edo “hobe zer esaten dugun ez jakitea”, esaterako. Modu honetan, “gazte elkartegintzara gerturatzeko beharra” adierazi nahi die kargu politikoei EGK-k. Izan ere, hori izan baitzen gazte-elkarguneak abiatutako **GazteEkin parte-prozesuaren ondorio nagusietako bat**. Orduan, 50 kolektibo eta eragile ezberdinetako pertsonak eztabaidatu zuten hamaika topaketa eta kongresu batean, gazteon ahotsa kontutan hartu dezaten formulak diseinatzen hasteko. “Kolektibo eta gazteak kargu publiko eta politikariekin elkartzea zen gure asmoa, elkarren artean ezagutzeko eta parte-hartze bideak zehazten joateko, baina sailburu, diputatu, zinegotzi eta bestelako hamarnaka karguei gonbidapena bidali izan genien arren, zortzi baino ez ziren etorri!”, azaldu du EGK-ko bozeramaileak.



PARTE HARTZEKO OZTOPOAK

Topaketetan parte hartu zuten gazteek bestelako oztopoak antzeman zituzten ere. Tartean, gazteek eta politikariek darabilzkiten **hizkera** zeberdinak, **ordutegi** askotan bateraezinak, **topagune neutroen** gabezia, parte hartzeko **pizgarri** falta eta prozesuen izaera **ez-loteslea**, atzo EGK-k aurkeztutako ondorio-txostenean jasotzen denez. Dokumentuaren arabera, gainera, “ekimen pribatuaren ahotsa elkartesarearen iritzien gainetik egon ohi da, hezkuntza eta **pedagogia demokratiko** baten gabezia dago eta Administrazioak **beldurra** die parte-hartze prozesuen emaitzei”.

Orain, EGK talde politiko guztiekin biltzen ari da, GazteEkin prozesuan parte hartu zutenen ahotsa helarazteko eta, “bidebatez, politikarientzat prestatutako parte hartze prozesu burlatia aurkezteko”, Ezeizaren hitzetan. Bai galdetegi hori bai GazteEkin prozesuko ondorio-koadernoak Kontseiluaren webgunean daude: www.egk.org



info+ eta elkarrizketak:

Itsaso Estarrona (Komunikazioa).
945 22 06 01 / 665 71 16 40.



Politikarientzat parte-hartze prozesua

(Oharra: ekimen honekin, Administrazioaren parte hartze molde gogoenetako bat erabili nahi izan dugu: galdetegiak! Beste era batera egitea hobe zela pentsatzen baduzu eta kexatu nahi baduzu, bilatu ezazu kexatzeko laukitxoak. Ziur asko ez duzu aurkituko).

Prest?

Gutxien atsekabetzen zaituen erantzuna aukeratu!

Pertsona gazteok politikarien ahotsa kontutan izan genezan gustatuko litzazuke?

- Bai, baina batzutan bakarrik.
- Inola ere ez. Zuek, zuenera, eta guk, gurera eta zuenera; horrela ezin hobe dihoakigu eta...
- Ados, izan ezazue kontutan gure ahotsa, baina men egiteko, noski! Zer bestela?
- Egia esan, hobe zer esaten dugun ez badakizue. *Total*, guk ere ez dakigu oso ondo zer den esaten duguna...
- Telefono deia komodina, goi kargu bati deitzeko. Upps.

Bere ingurua hobetu nahi duten gazteekin eta gazteen gizarte mugimenduekin kontaktuan egoteko topaguneak izatea gustatuko litzazuke?

- Ai, baina... ba al daude bere ingurua hobetu nahi duten gazteak? Eta gazteen gizarte mugimenduen zer da... 15M-a?
- Tira, gure bulegora baldin bazatozte eta gure ordutegian... agian, zeinek daki... esango diot nire idazkariari e-mail bidaltzeko...
- Nik zuen lokalera baldin banao, gurpil-aulkientzako moldatu beharko duzue, braille-kartelak jarri, desfibriladore bat instalatu... tira, gure eraikuntza publiko askotan egiten ez duguna egin.
- Hobeto pentsatuta, modu bikaina izan daiteke gure mitina irentsiarazteko!

Zein da oztoporik handiena, politikariak eta gazteok topaguneak eta hausnarketa guneak konpartitu ditzagun?

- Ordutegiak, argi dago: politikariak ez zaigu gustatzen ostiral arratsalde batean umemoko koadrila batekin elkartzeko behar izatea. Ezin al dira goizez klasetik edo lantokitik atera (edo Lanbideren ilaratik), gurekin hitz egiteko?
- Hizkuntza. Dударik gabe, ez dugu hizkuntza bera hitz egiten. Ez dira konturatzen "gastua arrazionalizatzea" artazia sartzea dela, eta "enpleguak malgutzeak" lan kontratu ziztrin batera kondentatzea esan nahi duela. Horrela ez dago elkar ulertzetik!
- Itxaron, galdu naiz: topaguneak eta hausnarketa guneak? Hori ez dago nire hautes-programan! (Ala bai...? Ez dut gogoratzen...).

Eskerrik asko parte hartzeagatik!

Lasai egon zaitzeko: inoiz ez duzu jakingo galdetegi hau zertarako balio izan duen, eta zure erantzunak kontutan izan ditugun edo ez.

Informazio gutxiago www.egk.org atarian



GazteEkin prozesuko **datu** batzuk

- **11** topaketa Gasteizen, Bilbon eta Donostian.
- Amaierako kongresu **1** Gernikan.
- **50** kolektibo eta eragileetako parte-hartzaileak: Nafarroako Gazteriaren Kontseilua, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, Ezker Abertzalea, Gernika Gogoratuz, Iratzarri, Juventudes Obreras Cristianas, Juventudes Socialistas de Euskadi, Nahia-Laia, Euzko Gaztedi, Gobierno Vasco, ZukGua, Urtxintxa Eskola Bizkaia, Ekonomia Kritikoa, HalaBedi, Astra Koordinakundea, Eup!, Liga de Jóvenes Saharauis, Bolunta, POTH, Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, Euskal Herriko Eskautak, Diputación Foral de Gipuzkoa, EQUO-Red Joven, Kabolamusik, Araña, Bertozale Elkartea, 15M, Alternatiba Gazteak, Lurgorri, Ikasle Abertzaleak, Ayuntamiento de Abadiño, Ezker Anitza, PH+, CCOO Gazteak, CRAJ, Juntas Generales de Araba, Bakeola, Kaebnai, Agifugi, Ayuntamiento de Donostia, Gazteleku, Oskarbi, Diputación Foral de Araba, Cruz Roja Juventud, Fundación EDE...
- **13** bideo, [EGK-ko Youtubeko katean](#) ikusgai / Argazkiak [Flickr-en](#).
- **20** bilera (oraingoz) politikari, teknikari eta elkarteekin prozesuaren ondorioez solasteko.

Ikusi GazteEkin prozesuaren **ondorio koaderno**a (gaztelera).



Ikusi GazteEkin-eko **ondorio Prezi-a** (euskaraz)

